Tolosaldea garatzen

2025TG0002

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, ARAUTUKO DUENA KANPO AUDITORIA EGITEKO ZERBITZUAREN KONTRATUAN, TOLOSALDEA GARATZEN S.A.REN KONTUEN EGOERENA	PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TECNICAS A REGIR EN EL CONTRATO DEL SERVICIO DE REALIZACION DE AUDITORIA EXTERNA DE LOS ESTADOS DE CUENTAS DE TOLOSALDEA GARATZEN, S.A..
1.- KONTRATISTAK TOLOSALDEA GARATZEN, S.A.RI EMAN BEHARREKO ZERBITZUAREN XEDEA EDO LANAK.	1.- OBJETO O TRABAJOS A PRESTAR POR EL CONTRATISTA A TOLOSALDEA GARATZEN, S.A.
Kontratu honen xedea Tolosaldea Garatzen SA sozietatearen urteko kontuen auditoretza-lana da. Kontu horietan sartzen dira ETEen balantzea, ETEen galera-irabazien kontua, ETEen ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta ETEen memoria.	El objeto del presente contrato es el trabajo de auditoría de las cuentas anuales de la sociedad Tolosaldea Garatzen, S.A. que comprenden el balance de PYMEs, la cuenta de pérdidas y ganancias de PYMEs, el estado de cambios en el patrimonio neto de PYMEs y la memoria de PYMEs.
Lana izango da egiaztatzea entitate auditatuaren urteko kontuek adierazten duten, aspektu esanguratsu guztietan, haren ondarearen eta finantza egoeraren irudi zehatza data horretan, baita ere, emaitzena finantza informazioko arau-esparruarekin bat, eta, bereziki, hango kontabilitate printzipioekin eta irizpideekin.	El trabajo a realizar consistirá en verificar si las cuentas anuales de la entidad auditada expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la misma a esa fecha, así como de sus resultados, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulte de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables de la misma.
Halaber, kontratuan sartzen dira aholkularitza lanak, ekitaldia exekutatzen eta ixten denean, baita ere, kontuak eta dokumentazioa idazten direnean, legez errekeritzen badira.	Asimismo, el contrato incluye el asesoramiento durante la ejecución del ejercicio y en el cierre, así como en la redacción de las cuentas y documentación legalmente requeridas.
	.
2.- KONTRATUAREN IRISMENA	2.- ALCANCE DEL CONTRATO

Adjudikaziodunak, lanaren bukaerako emaitza moduan, agiri hauek aurkeztu beharko ditu: a) Ondare-kontabilitatearen auditoria non azaltzen den ea ETEen urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, Sozietatearen 2025, 2026 eta 2027ko abenduaren 31ko (eta 2028koa luzapenik balitz) ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten duten, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagokion emaitzarena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiarekin bat etorriz, eta, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauekin. b) Auditoreak aholku-dokumentu bat egin beharko du; dokumentu horretan elkarte anonimoan administrazio- eta kontabilitate-prozedurak hobetzeko bere ustez egokiak izan daitezkeen neurriak azalduko ditu. c) Aipatutako txostenak eta azterketak euskaraz eta gazteleraz idatzita aurkeztu beharko dira. **3. LANAREN ANTOLAMENDUA** Auditoria-lana auditoria-enpresako profesionalek burutuko dute, bazkide- zuzendari baten ardurapean eta Tolosaldea Garatzen, S.A.ko teknikariekin elkarlanean.	La empresa adjudicataria deberá, como resultado final del trabajo, presentar los siguientes documentos: a) Auditoría de la contabilidad patrimonial en la que conste si las cuentas anuales de PYMEs representan, en todas las áreas significativas, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Sociedad al 31 de diciembre de 2025, 2026 y 2027 (y 2028 en caso de prórroga), así como del resultado correspondiente al ejercicio terminado en esa fecha, de acuerdo con la normativa de información financiera que le sea de aplicación y, en particular, con los principios y normas contables que figuran en la misma. b) Emitir un documento con las recomendaciones que la empresa auditora considere oportunas para la mejora de los procedimientos administrativos y contables de la Sociedad Anónima. c) Los informes y análisis citados deberán presentarse por escrito en euskera y castellano. **3. ORGANIZACIÓN DEL TRABAJO** El trabajo de auditoría será realizado por profesionales de la firma de auditoría bajo la responsabilidad de un/a socio/a director/a de la misma y en coordinación con los técnicos de Tolosaldea Garatzen, S.A.

4. LAN PLANA Ekitaldian noizean behin eskatu badaitezke ere hainbat kontsulta edo aholku, zeintzuk planteatuko diren antzemandako beharraren arabera, lanak bi fase izango ditu: atariko fasea eta bukaerakoa. A- Atariko fasea auditatzen den ekitaldiaren itxiera kontablea baino lehen egingo da. B- Bukaerako fasea ondorengo ekitaldian zehar egingo da, eta behin betiko txostenak entregatutakoan bukatuko da. Enpresa adjudikaziodunak beharrezkoa duen dokumentazioa jaso ondoren, handik bi hilabetera amaitu beharko ditu txostenak, gutxienez astebete lehenago, txosten bakoitzeko zirriborro bat aurkeztuko da.	**4. PLAN DE TRABAJO** Sin perjuicio de las consultas o asesoramientos puntuales requeridos durante el ejercicio, que serán planteadas en función de la necesidad detectada, la realización del trabajo comprenderá dos fases: La Fase preliminar y la final. A- La Fase preliminar, que deberá realizarse con anterioridad al cierre contable del ejercicio a auditar. B- La fase final se ejecutará durante el siguiente ejercicio y deberá terminarse con la entrega de los informes definitivos dentro de los dos meses posteriores a la recepción por la empresa adjudicataria de la documentación que precisen. Una semana antes como mínimo, se presentará un borrador de cada informe.
5. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE TEKNIKOAK Azaldu den lana egiteko, enpresa adjudikaziodunak behar beste giza baliabide eta baliabide tekniko izan beharko ditu, kontratuaren xedea Klausula Administratiboetan aipatzen diren epeetan bukatzea ahalbidetzeko modukoak. Auditoria lanak egitearen talde arduradunak, gutxienez, edukiko ditu kontratuaren auditore arduradun bat, taldeburu bat eta laguntzaile bat. Bestalde, kontratatutako lana egiteko aztertu beharreko dokumentu batzuk euskaraz	**5. MEDIOS HUMANOS Y TÉCNICOS** Para la realización del trabajo descrito, la Empresa adjudicataria dispondrá de los medios humanos y técnicos necesarios para que el objeto del contrato esté finalizado en los plazos que se especifican en las Cláusulas Administrativas. El equipo responsable de la realización de los trabajos de auditoría constará al menos de un auditor/a responsable del contrato, de un jefe/a de equipo y de un/a ayudante. Por otra parte, dado que, parte de los documentos a analizar para la

izapidetuta daudenez, eta akordioak eta espedienteak zein hizkuntzatan eman diren kontuan hartuta auditoriaren garapen normalak kalterik izan ez dezan, nahitaezko baldintza da auditoretza-taldeko pertsona batek gutxienez euskara ahoz eta idatziz jakitea bermatzea.	realización del trabajo contratado se hallan tramitados en euskera y al objeto de que el normal desarrollo de la auditoria no se vea perjudicado por razón del idioma en que han sido vehiculizados los diferentes acuerdos y expedientes, se establece como requisito necesario que al menos una de las personas del equipo de auditoria garantice el conocimiento, oral y escrito, del euskera.
Horrela, bada, zerbitzua eskainiko duen enpresa esleipendunaren langileetako batek gutxienez **Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko du (EGA edo antzekoa).**	Por lo tanto, y teniendo en cuenta las características del servicio, al menos una de las personas de la empresa adjudicataria que van a prestar el servicio **deberá acreditar el nivel de competencia C1 del Marco Europeo de Referencia (EGA o equivalente**).
Lehiaketa honetara aurkezten diren enpresek bere proposamenean adierazi behar dute zein edo zeintzuk diren pertsona horiek.	Las empresas participantes en esta Convocatoria deberán indicar quién o quiénes de sus auditores reúnen esa condición.
EGINBIDEA.- Baldintza-orri hau, 2025eko irailaren 15ean ospatutako Administrazio Kontseiluak onartu du.	**DILIGENCIA.-** El presente pliego de condiciones se ha aprobado por el Consejo de Administración en fecha 15 de septiembre de 2025.
Tolosan, 2025eko irailaren 16ean	Tolosa, 16 de septiembre de 2025